

Ihesi

JOXEMIEL BIDADOR

Tutera (Nafarroa)

Bedatsean barna

Ez da udaberrikoa bezain garai ederrik Erriberako hiriburura bisitan hurbiltzeko, izan ere, berdez janzten baitute maiatzero; barazkiaren hiria zaharra da, ordea, eta barazkia goraipatzeko jardunaldiak baino dexente lehenago eman dizkigu Ebro amak egunotako oparoa. Beude haatik ospakizunak, josta eta dasta dezagun bedatse emankorra Tuterako igaliez, hiri zaharreko karrika anabasan sartuz eta zain dauzkagun istorioak gozatuz.

EZ DA BERRIA aste honetako Ihesi-ko helmuga ARGIA gure aldizkarian, nahiz onartu behar den aspaldi xamarrean agertu zela Iosu Etxanizek sinaturiko “Nafar Erribera: kulturen mestizajea labirintoan”, 2002ko otsaila hasieran alegia, 1840. zenbakian hots. Euria egin du harrez geroztik, guttiago

Erribera aldean, baina euria beti ere. Eskaria Korrika 16 hasi aitzin etorri zitzaidan, ez dakit ordea horri aiduru soilik, horri belanda; pentsu dut ezetz, zinezkoa zela interesa. Lasterketa aipatu dudala probestuz, Korrika 16aren ekitaldi hasieran izan nintzen bada, aurkezle nazkante lana egiten edo.

Hango euskaltegiaren izena eta izana goraipatzeko deitu ninduten, baina engaiamendu guttiko pertsona izanki eta mozturro gabe, are denborarik gabe ere, motz eta lakar eraman behar izan nuen parte hartzeen segida. Barka nazaten barkatzen dutenek.

Zendako eraikin esanguratsuen berri luzea eman, zendako bereizi ezer, konjuntioa denean unitate? Tuteran, osotasunean datza miraria, ez bakoitasunean.



Azkenik atera zen Korrika 16. Ez nion segitu baina, lasaitasuna behar eta horri josi nintzaion gogoz eta gorputzez. Lehenbizi karrikategi estuan barneratu, eta segituan udaberriko lehenbiziko beroaz gozatu kale kantoiaren estutasunean, itzal distiratsuetan. Eta horixe da Tuterara datorren edozein bisitarik egin beharreko lehenbiziko gauza, ene uste apa-lean. Bidean dela hurbiltzen, aukera dauka ortzi-muga amaigabearen handitasunaz bere buruari txiki sentiarazteko. Baina behin hirira arribaturik eta autoa inon abandonaturik, alde zaharreko karrikan anabasan sartu behar, labirintoan galdu, eta Polifemoren xerka bailebilen, izkinetan pausatu kontentplazione aspertuan. Zendako eraikin esanguratsuen berri luzea eman, zendako bereizi ezer, konjuntioa denean unitate. Osotasunean datza miraria, ez ordea bakoitasunean. Hor dela jauregi hori

edo han dela beste hura? Horrela ibiltzea gainbehera jarraitzen duten altxorrak miretsi nahi izatea bezalakoa da. Zein egoeratan daude, esaterako, Portal karrikako jauretxeak, edo San Nikolas eliza, edo apaizgaitegia, edo Koxkolin inguruak, edo nola egon da almirantearen etxea gaur arte, konpontzeko zegoen diru-laguntza berari ere muzin egiteraino? Beharrik garabia dutela muntatu jada, bestenaz... Gogoan dut goizeko ordu txikietan Santa Ana egunean patroizaharraren prozesio txikerra denean nora begira ibiltzen diren tuterarrok erraldoien atzetik. Lurrera beheiti, behera beti, lotsaizuna bailitza hiriaz senti dutena. Eta inon badira harro, horixe baietz direla Tuteran, ondoko herrietakoek *los pavos* deitzena. Horixe ezizen argigarria! Baina urrezko garaiak igarota, alde zahar handiegia zein pribatuegia dukete konpontzeko, eta eroria dena erortzenago egunez egun.

Tutera are anabasago izan zen, labirintoago. Egungo alde zaharrean anitz pareta dira eroraraziak, anitz indatxiki karrika zabalagori emendatuak. Eta hala eta guzti ere, alde zahar korapilatsu, trinko eta sekretuz beteko planta digu erakusten: Pasaje, Cortes, Cofrete, Albillo, Papallueca... Aukera ona duke bisitariak eliz nagusi ondoko turismo bulegoraino hurbiltzea, Roso karrikan, sartu eta gainean etxe dugunoi ebatsiriko sotoaren ederraz gozatzu, hantxe hasiera eman bisitaldiari. Hiriko tokirik zaharrean omen da, arabiarren zoko eta judutegia izaniko etxe-multzoan. Ondoan ere ezin utzizkoa den katedrala. Tutera hiria Amrus ibn Yusuf al-Muwaladek sortu zuen 802an, medina Totila, erdarazko *tutela* edo *guardia*, Al Hakan I.a erregearen agintaldian. Alfontso Berrezarriak kendu zien arabiarrei 1119an, eta mezkita zenaren gainean Antso Jakitunak eraikiarazi zuen kolegiata, 1783az geroz katedrala izanen zena, Teobaldoen garaian bukatu. Lau urteko berregitearen ostean, 2006ko irailean ireki zuten katedral

orraztu berria, baina badira oraino XII. mendeko tenplua itsustuten duten gehigarriak. Santa Anako kapera barrokoa ezin gauza itsusiagoa zait, kanpo aldetik ikusita behintzat, eta barka nazatela orain tuterar prestuok. Are jasanezinagoa dateke katedralaren absidea ezkututzen duen adreiluzko itsasgarri afrusa, 36-39ko irabazleen aldean hil zirenen omenezko monumentua dena. Orain dela mende bat, bizitegiak katedralaren hormatik beretik hasten ziren, 1900eko





JOXEMIEL BIDADORREK UTZIA



JOXEMIEL BIDADOR

Denborak dakarren aldaketa: ezkerreko irudian, katedrala 1900ean, etxea haren hormari itsatsita dagoela. Goian, toki bera gaur egun.

argazki batean ikus daitekeenez—lerro hauen gainean hain justu—, egungo Ugarte plaza (plaza zaharra) den horretan. Oraino urteak beharko dira XII. mendeko abside gotiko ederraz gozatu ahal izateko. Iritsi beharrekoa iritsiko delakoan.

Kulturen mitoa eta beste

Ez da Tuterakoa asmatutik mitoi isuri egiten ez zaion tokia, gutiz gehienekoetan agitu bezala, eta nonahiko azturari jarraikiz, hemen ere iruditeria fantastikoak *veritas memorabilis* horri atxiki dio fiera, eta zori oneko tokia izan da tradizio berriak sortzeko gutizia izan duten istoriogileendako. Ene gustukoena Jose Joakin Montoro Sagasti naski. Hiriko armarria zela eta ez zela, Castro Alava historiagile sonatu eta Julio Segura hiriko artxibozainaren arteko ika-mika kalapitatsua suertatu zen 1968an. Bigarrenak hiriko armarrian zikoinak eta barboak agertzea defendatzen zueno lehenbizikoak zioen ezetz, gehigarri horiek tokiz kanpo zeudela benetako armarria zen Ebro gaineko zubian. Eztabaida

bukatua bide zegoela Montorok irekiarazi zuen, eta barboak ez, esturioi edo solloak baizik, eta hirian kabiak *made in Tudela* egitearen aldeko apustua defendatu zuen. Historialariak amua irentsi, eta Montorori erantzun zion eskandalizaturik. Zenbait oraino dabil karkailaka.

Montorori zor diogu kristau, arabiar eta judutarren arteko armonia. Sinesmen hori sortzeaz

Tutera are anabasago izan zen, labirintoago. Egungo alde zaharrean anitz pareta dira eroraraziak, anitz indatxiki karrika zabalagori emendatuak

gainera bultzatu ere egin zuen, eta festetako aldizkaritxoan agertu zituen hainbat kolaborazio horren oinarriak, 1950-1962 urte bitartean: hari esker dakigu nolatan iritsi ziren esparragoen haziak Bagdadetik Tuterara, Abutxafar Admed poeta itsu

tuterarraren berri dugu, edota irakurtzerik daukagu emakume bizardunaren *aldrageria*. Bestalde Montoro izan zen Tuterako Benjamin judutar bidaialaria herrikoitu zuena, bidaia handiari Tuteratik hasiera eman zioneko zortzigarren mendeurrena zela bide, Verjas karrikan oroitarri ezaguna jarritz. Historia eta istorio guzti horien bilduma *Algaruibis tutilis* izenburupean agertu nahi izan zuen, baina ez zitzaigun iritsi, eta beraz, hemerroteketan sartu ezean Montororen ondarea ezagutzeko modurik hoberena Plaza Berrian pausatzea da, eta hormetako azulejo polikromatuei begira egon. Hantxe daude Tuterako leinuen armarriak eta zezen plaza zenekoa oroitarazten duten zezenketa margoak. Esne merengatu baten gozoaz, esaterako, gutizia.

Mejanari so

Garai pollita dugu udaberrikoa Tuterara bisitari hurbiltzeko. Uda lehorregia ohi da itzal babesetik abiatzeko, eta negua zakartzen du *zierzo* deitzen duten ipar haize

**Mejanakotzat saltzen
den barazki oro
kontuan harturik,
Mejanaren tamainak
Nafarroa osoa baino
handiagoa behar luke**

hitsak. Erriberako bedatsea bereziki koloretsua da, fruta arbolak loretan, lehenbiziko epelaldi gozoak baikortasuna dakarrenean. Tuteran barazki egunak dira, *jornadas de exaltación de la verdura*, apirileko azken astean eta maiatzeko lehenbizikoan: alkatxofa azkenekotan da baina oraino aukera dago barazki magikoa dastatzeko, menestran zein egosirik zein frijituta; esparragorik hoberenak orain ditugu, *los de abril p'a mí, los de mayo p'al amo, los de junio p'a ninguno*; babak, ilarak, tipuletak, lekak... Nik gehiago estimatzen ditut uda beroko tomateak, festetan entzierro ostetik piper biziakin su txingarretan erreta egiten dituzten tomate puxka horiek, baina garaian garaikoa behar.

Anitz ekitaldik osatzen dute egitarau ofiziala, baina egunotan ez dago tabernaz taberna, elkartez elkarte alderrai ibiltzea bezalakorik; batean pattarretan egosiriko tipuletak, bestean ziazerba erreak gasnarekin, ardo xuri gozoz zein beltz garratzez, edota bertako gorri dotorez.

Barazkien berezko jatorria Mejana da. Segur aski ere Kristoren *lignum crucis* erlikiarekin gertatu



Generikoa dugu "mejana" hitza, baina bakarra da Tuterari ospea eman diona, Gurutze Santuko Mejana alegia.

antzera, munduan diren guztiak elkarturik Irati basoa txiki gera litekeela, hemen ere Mejanakotzat saltzen den barazki oro kontuan harturik, Mejanaren tamainak Nafarroa osoa baino handiagoa beharko luke. Alabaina Mejana bada, edo badira, izan ere, mejana hitza generikoa baitugu, arabieratik helduriko hitza inondik inora, eta urandian geraturiko uharteei deritze. Guziarekin bakarra da Tuterari ospe eman diona, Gurutze Santuko Mejana alegia, Ebro eta Molinar ubidearen artean dagoena. Jotak honela kantatzen dio: *Pamplona tiene cadenas / Y Tudela su Mejana / Pero tú a mí no me quíeres / Porque no te da la gana*.

Alabaina Mejana ez dute beti halako estimuan izan. Arras ongi dago dokumentaturik zein nolako borroka latza izan zuten tuterarrak urandiarekin Mejana sor ez zedin XVII. mendera arte gutxienez; azkenik 1666ko irailean erabaki zuen hiriak Mejanako berroa goldatzen hasteko. Tartasen urte emankorrean hasiera eman zitzaion beraz munduko baratze famatuenetariko bati. Geroantzean Ebrok ekarritako lohiak lurzati berria osatu zuten Mejanako iparraldean, *la Mejánica* deitzen dena; bi mejanen artean 655 errobo boko baratzea dago, Ebrok lohi gehiago ekartzen duen bitartean bederen. ■



Jolastoki

Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA
www.restaurantejolastoki.com

